

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2024ko apirilaren 11n, ondorengo Dekretu hau eman duela:

“2024ko otsailaren 29ko dekretu baten bitartez erabaki zen aldi baterako kontratazio premietarako Kultura Departamendurako Kultura eta Jaietako laguntzaile langileen lan-poltsa sortzeko deialdia egitea eta deialdi hori arautuko zuten oinarriak onartzea.

Oinarri horietan akatsak antzeman ziren eta 2024ko apirilaren 10eko dekretu baten bitartez zuzentzea erabaki zen.

Geroztik udala konturatu da ez dela zehaztu lan-poltsaren iraupena, eta ulertuta komeni dela zehaztea, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Oinarrietako 9 puntuaren bukaeran honako hau gehitzea:

*Sortutako Lan-poltsa indarrean sartuko da udalak sortzea ebazten duenetik aurrera. Lan-poltsak urtebeteko balioa izango du –indarrean jartzen denetik kontatzen hasita–, baina urtez urte luzatu ahal izango da gehienez ere beste lau urtez, baldin eta Antolakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz Alkate-Lehendakariak kontrakoa erabakiko ez balu.*

*Lan-poltsaren funtzionamendurako, udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen Dekretuz onartua zuen lan-poltsen erabilerarako barne araudiari jarraituko zaio (eranskin gisa dago jasota).*

BIGARRENA: Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web-orrian.”

*Ebazpenaren aurkako bideak*

*Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.*

*Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.*

*Dena den, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.*

*LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.*

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan  
IDAZKARIA

SE COMUNICA que le alcalde el 11 de abril de 2024 ha emitido el siguiente Decreto:

“Mediante decreto de 29 de febrero de 2024, se resolvió realizar una convocatoria para la creación de una bolsa de trabajo de trabajadores/as auxiliares de Cultura y Festejos del Departamento de Cultura, para responder a necesidades de contratación temporal, así como aprobar las bases que habían de regir el proceso selectivo.

Advertidos algunos errores en dichas bases, se procedió a su rectificación mediante Decreto emitido el 10 de abril de 2024.

Posteriormente el Ayuntamiento ha detectado que no se ha establecido la duración de la bolsa de trabajo, y estimado que es conveniente recogerlo, **HE RESUELTO**:

**PRIMERO:** Añadir lo siguiente al final del punto 9 de las bases:

*La bolsa de trabajo entrará en vigor cuando se dicte la resolución de constitución de la bolsa.*

*La bolsa de trabajo tendrá una vigencia de un año –a partir de su entrada en vigor–, si bien será prorrogable anualmente por otros cuatro años como máximo, salvo resolución en contra de la Alcaldía-Presidencia a propuesta de la Comisión de Organización.*

*El funcionamiento de la bolsa de trabajo se regirá por la Normativa Interna para la Utilización de Bolsas de Trabajo que fue aprobada por el ayuntamiento mediante Decreto de Alcaldía de 4 de abril de 2006 (se adjunta como anexo).*

**SEGUNDO:** Publicar esta resolución en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento”

*Recursos contra la resolución:*

*Contra esta resolución que es definitiva en vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de esta notificación.*

*No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se notifica se podrá interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el siguiente de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de esta notificación.*

*Todo ello sin perjuicio de que se pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.*

**FUNDAMENTOS JURÍDICOS:** *Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.*

En Bergara, a fecha de la firma electrónica  
LA SECRETARIA

